

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, OÑATIKO UDALAREN 2020KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko Bilkurak (aurrerantzean, HKEE) joan den martxoaren 30ean aho batez onartu zuen Oñatiko Udalaren Kontu Orokorraren gaineko fiskalizazio txostena, 2020ko ekitaldiari buruzkoa.

2020ko **urteko kontuei** dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du, nahiz Diruzaintza Geldikina 368 mila euroan gehituko luketen kontularitzako zenbait doiketa azaleratu diren. Gainera, Udalaren kontuek ez dute orube bat deskutsatzeko obrek eta 2 zabortegei ixteko kostuek eragindako gorabeheren berri ematen. Azkenik, Likidazioaren egoera-orrian ez dira barne hartu abenduaren 31n zeuden inbertsio-konpromisoak, guztira 3,2 milioi euroren zenbatekodunak.

Fiskalizatutako kontuetatik eratorritako **finantza egoerari** dagokionez, HKEEk adierazi du COVID-19a dela eta, diru-sarrerak gastu arruntak baino gehiago murriztu direla eta horrek aurrezki gordinaren mailak behera egitea eragin du.

**Aurrekontuaren egonkortasun**-helburuei dagokienez, Udaleko Kontu-hartzaitzaren txostenak adierazi du osasun krisiaren ondorioz eten egin zirela 2020rako finkatutako helburuak. Hori horrela izanda ere, eragiketa ez-finantzarioetan defizit bat egon dela ondorioztatu da, Geldikina baliatzearen ondorioz, eta horrek berak justifikatzen du gastu ez-finantzarioen igoera. Zorpetzeari dagokionez, 2020. urtearen hasieran zehaztutako % 70eko muga bete zen.

Udalak **zuzentasunez bete du** 2020an ekonomia eta finantza jarduera arautzen duen **lege arautegia**, nahiz unean uneko akatsak azaleratu diren Kontratazioan, izan ere 4 urteko iraupeneko zerbitzu-kontratu bat zerbitzu-kudeaketako modura kalifikatu da, 8 urteko iraupenarekin; 4 kontratu gauzatu dira kontratu-estaldurarik izan gabe; eta 4 kontratutan ez da bete dagokion esleipen-prozedura.